

Konplizeen agurrak

#####

Ikaslea nintzela zure orrietan nire lehen artikulua argitaratuta ikusteak ikerketa munduan murgiltzeko kemena eman zidan.

Urte hauetan zure alboan hezi eta hazi eta gero, gaur, tesia entregatu ondoren, zu agurtzea tokatzen zait.

Baina, ez da saminik nire hitzetan, soilik esker ona. Laster arte bidelagun!

Gaizka Altuna Txarterina

Eraikitzea baita kontua

“—Baina hi zertarako harpidetuko haiz arkitektura aldizkari batera?”.

Ezagutzen nuen galdera egin zidana. Ni nintzelako.

Uxue Apaolazaren Mea culpa nobelako protagonistak “organo boikot egilea” deitzen dio guztion buru barnean bizi den ahots autosabotatzaile horri.

“—Ez duk ulertuko publikatuko duten ezer”.

“—Ez haiz kapaz plano bat interpretatzeko eta”.

“—Gauza hauek dakitenentzat dituk, hik ez dakik”.

Euskaldunok hipertrofiatuta daukagun giharrik baldin bada, hauxe.

“—Arkitekturaz eta euskaraz? Hori ez du inork irakurriko”.

Aldiri-koek bai jakin, ordea: ausardia orotatik begiratu nahi gaituen ahots gogaikarri hori ederki isildu da azken II urteotan.

45. zenbakiko zimenduak bukatuta, ganean zer altxako duzuen ikusteko irrika du auzo honetan etxean bezala sentitu denak.

Zeren hemen eraikitzea baita kontua. Elkarrekin eraikitzea eta elkar eraikitzea. Arkitekturaz ideia handirik eduki ez arren, hori behintzat lehen aldizkaria jaso nuenetik entenditu nuen.

Gorka Bereziartua Mitxelena (Aldiri-ko harpideduna)

Arkitektura eskolaren inguruan, maiz sortzen den gaia da aldizkari baten beharra. Belaunaldiz belaunaldi errepikatzen da, eginbeharren zerrenda luzeak baina emaitza laburrak izaten dituzten solas luze horietan. Ematen diren arrazoiak ezberdinak izaten dira: batzuetan, ibilbide akademiko luzeak eskatzen dituen argitalpenentzat plataforma bat edukitzea. Bestetan, arkitekturaren inguruko gogoeta eta solasa suspertzea. Eta zenbaitetan, euskal idazlanen lurraldera arkitekturatik ekarpenak egitea.

Lan itzela da egunkari bat sortzea. Are gehiago lehen aleak argitaratzeko bultzada gaingiduta, proiektuari jarraitutasun eta iraupena ematea. Horregatik, ia beti, nahi eta borondate horiek hutsean gelditzen dira.

ALDIRI izan da salbuespena. Arrazoi haiek guztiak ase egin ditu urte luzeetan, bai akademikoak, bai arkitektonikoak, bai eta hizkuntzarenak ere.

Lekukoa hartzeko adorea izango dutenen zain, gure esker ona gauzatu dutenei.

Iñaki Begiristain

ALDIRIrentzat/ADIRIarrentzat BIZPAHIRU HITZ

Hirietako nahiz herri gizenduen 'aldirietan' gertatu ohi den legez, *Aldiri* aldizkariak arkitekturan eta hirigintzan jarria izan du urteotako muinoa; eta abar... delako horretan, aldiz, hiri-bihotzetik harago aurkitu ditugun 'zabalguneak': maiz arte plastikoak, diseinua, teknika grafikoak eta infografia, hiri-paisaia nonahi, espazio publikoa, kontu filosofikoak, ingurugiro jasagarria edo jasangarritasunik eza, etxebizitza, lurraldea, industria, hezkuntza, kirola, postmodernitatea, generoa, ekonomia, kartografia, gizarteko afera kultural eta antropologikoak, komikia... eta abar, humanitateen begirada zorrotz/sakonaz erakarriak.

Urteetako ibilbide oparoan, sarri askotan aldiriak eta abarrak... bilakatu zaizkigu erdigunea baino funtsezkoagoak, betiere ulermen estetiko gailenduz. Zinez eskertzeko ahaleginak, elkarren segidako zenbaki zein orrialdeetan islaturiko altxor nabarrietan: artikuluko zientifikoak, irizitatuak, elkarrizketak, irudiak...

Dozena bat urte eta (bider lau) kasik lau dozena liburuxka ukigarri: hamaika irakurgaiz, dokumentuz, ikerlanez edota eraikuntza-ohitura gaurkotuez jantziak, zenbait gizabanakoren talde-lanaz gauzatuak. *Aldiriko* pertsona bakoitzak marrazkitxo bat merezi baitu; idazlan bakoitzaren atarian ingerada finaz, autoreen omenezko keinuz jartzen zirenak bezalakoak, alegia. Den-dena euskaraz emana gainera... adiorik ez, bejondeizuela zuei!

Isusko Vivas

Aldiri aldizkariak bere ibilbideari amaiera emanez, hamaika urtetan zehar taldean garatutako historia baten eraikuntza erakusten du. Adrian Forty-ren hitzetan, historia orainalditik behin eta berriz egitearen indarrez existitzen da. Horregatik, lan intentsiboaz, etengabeko orainaldi batean hedaturiko 44 ale horiek arkitektura garaikidearen historia baliotsu bat osatzen dute. Ez da lorpen txikia. Arkitekturak gizartearentzat garrantzitsua izaten jarrai dezan, premiazko galderak aurkeztu eta erantzun kritikoak argitaratu izanak meritu aipagarria du.

Eskerdun sentitzen naiz lan kolektibo honetan bat egiteko aukera eduki izanagatik. Zorionak atseden gabe jardun zareten zuzendaritza eta argitaratze talde guztiei. Sakona da *Aldirik* gure euskal eta arkitektura kulturalen uzten duen aztarna. Zaindu dezagun guztion artean ondare baliotsu hau.

Laura Martínez de Guereñu

Aldiri aldizkariari eta berau abiatu zutenei, asko zor diegu. Haiei esker, euskarak eta euskaldunok arkitekturari buruzko aldizkari berritzaile bat izan dugu, gai izan baita, garaian garai, arkitektura, hiria eta lurraldearen inguruan gure gizartean piztu izan diren gogoeta, kezka eta ametsei erantzuten. Bejondeizuela guztioi.

Lauren Etxepare

Lerro hauen bitartez nire esker beroena *Aldirikide* guztioi; erraza izan da zuokin lan egitea. Zuon eskakizun-mailak aldizkariarekiko beti lagundu izan digu hobetzeko. Laster arte bat izatea da nire itxaropena, bidean zuokin topo egingo dugu; aldizkaria, ikastaro, lagunarte giroan...

Eskerrik asko bihotzez.

Nekane Intxaurtza